

Ordizian, **2014ko otsailaren 27a** UDALBATZARRAK **Ohiko bilkura** egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

**BERTARATUTAKOAK:**

**LEHENDAKARIA:**

Igor Eguren Izagirre jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi	BILDU taldea
Juan M <sup>a</sup> .Guereñu Aldasoro	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregui	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	PNV taldea
Judith Otegi López de Murillas	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	PNV taldea
Bittor Iñaki Bolinaza Alzelai	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE(PSOE) taldea

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika jn.

**KONTUHARTZAILEA:**

Jose Luis Aranburu Otegi jn.

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra and.



## **BERTARATZEAK ETA IRTEERAK**

### **AZTERTUTAKO GAIAK**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2014ko urtarrilaren 30eko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
- 2.- EH-Bilduren martxoaren 8ko adierazpena.
- 3.- Saharako bandera Ordiziako Udaletxeko balkoian ipintzeko proposamena.
- 4.- Ordiziako Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II.Plana onartzea.
- 5.- Kreditu transferentzi espedientea onartzea.
- 6.- 2013an krediturik gabe egindako gastuak 2014ko aurrekontuan sartzea.
- 7.- Ordizia-Hiri Hezitzailea” proiektuari atxikitzea.

#### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GORABEHERAK**

#### **GALDE-ESKEAK**

#### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 19:00 etan**

**AMAIERA: 19:30etan**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

## **1.- 2014ko urtarrilaren 30eko Ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea**

### Proposamena

#### **2014ko urtarrilaren 30 eko ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.**

proposamena onartzeko beharrezko gehiengo: soila.

### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Dubreuil jn.

Adierazi du haurdunaldia eteteko lege proiektua aldatzeko onartutako mozio bateratuari buruzko puntuan bere interbentzio eta Santamaria jaunaren interbentzioan akats hau dagoela: Orain aldatu nahi den Legea ez 2012. Urtean, baizik eta 2010. urtean onartutakoa dela.

### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

## **2.- EH-BILDUen martxoaren 8ko adierazpena.**

### Proposamena



## EUSKAL HERRI FEMINISTA ERAIKITZEKO KONPROMISOA

Martxoaren 8a hurbiltzen ari zaigu urtero bezala, Emakumeon Eguna. Urteetako borrokak gogoratzeko eta ospatzeko aukera ematen digu baina, batez ere, emakumeon egoeraren inguruko hausnarketak partekatu eta balantzea egiteko aukera ona izaten da.

Krisiaren itzalpean harro dabilzkigu kapitala eta patriarkatua, lotsarik gabe, mozorroa kenduta. Eta emakumeok orain arte lortutako askatasun eta eskubideak galtzen ari gara, atzeraka goaz. Inboluzio une batean gaude. Historia lineala ez denez, ez goaz beti aurrera; baina historia idatzita ez dagoenez, ezer ez da ezinbestekoa, aldaezina. Inboluzio une batean bagaude ere, gure esku dago borroka feminista indartu eta, haizea alde ez izan arren, egoera aldatzea.

Emakumeon egungo egoera hitz gutxitan laburbildu beharko bagenu, honela jasoko genuke: lan-merkatuan gero eta biluziago, zaintzaren motxilan gero eta harri gehiago, umetokian bandera espainola ezarrita (Estatuaren lurralde bihurtuta) eta gorputza indarkeria sexistak moretuta. Hori guztia, emakumeon eta familia-eredu heterosexualaren hautua egiten ez dutenen kontrako eraso ideologikoarekin lagunduta: gaiztoak, gaixoak, sorginak eta eroak omen.

Lan-merkatuan gero eta biluziago gaude emakumeok. Botere ekonomikoaren mesedetan arautzen ari da lan-mundua, lanerako gorputza, burua eta eskuak besterik ez ditugunok babesik gabe utziz. Haurdun dauden emakumeak kaleratzeko aukera legezatu da, lan-baldintzak okertzen ari dira orokorrean eta emakumeak nagusi diren hirugarren sektorean bereziki, eta sektore feminizatueta behin-behinekotasuna, ziurgabetasuna eta prekaritatea dira nagusi. Horrekin batera, lan-merkatutik kanpo uzten ditugun etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumeen bizkar erortzen jarraitzen dute. Ez hori bakarrik; erakunde publikoak, pertsonen zaintza luxua dela baloratuta, horretarako dauden zerbitzuak eta laguntzak murrizten ari dira eta, ordainetan, emakumeon zaintzaren motxila kargatzen. Biluzik eta gero eta motxila handiagoarekin gabiltza.

Biluzik gabiltzan arren, gure gorputza ere ez digute guretzat utzi nahi. Gure gorputza gurea dela ukatu nahi digute. Gure umetokia Estatu-arazoa dela diote baina gaude beraientzat arazoa, azken finean, emakumeak garela. Abortatzeko eskubidea ukatzeko Espainiako Gobernuak aurkeztu duen kontrarreformarekin, duela 40 urte oihukatutako aldarriak berriz etorri zaizkigu umetokietatik eztarrietara. Posible da lan-merkatuak ume gehiago nahi izatea langabezia-poltsak handitzeko, langabeziaren mehatxupearan langileak otzantzeko, beldurra areagotzeko. Baina, batez ere, motibazio ideologiko ultrari erantzuten dio; emakumeok ama-emazte izan behar dugun ideologiari, hain zuzen.

Abortuaren kontrarreformarekin batera, emakumeon askatasunaren eta aniztasunaren kontrako eraso gehiago datoz, emakumea emazte-ama fin, otzan eta menpeko bihurtzeko. Patriarkatuaren zutabea den familia-eredu tradizionala edo heteropatriarkala indartzeko neurriak dira. Ugalketa lagundurako eskubidea bikote heterosexualentzat soilik, haurdun geratzen den emakume oro haurra izatera behartu, norberaren gorputza eta desioak ezagutu eta garatzeko hezkuntza afektibo-sexuala murriztu edo LOMCErekin guztiz ezabatu, elizgizon esanguratsuen ahotik sexu bereko pertsonen arteko harremanak gaixotasun gisa aurkeztu nahi dizkigute, eta indarkeria sexistaren



dimentsioa ezkutatu, garrantzia kenduz, datuak makilatuz (indarkeria sexista gisa kontabilizatuko direlako soilik eraildako emakumeak eta 24 orduetik gora ospitaleratutakoak) eta batzuetan justifikatuz. Erakunde publikoek eta hedabideek horretan duten ardura ez da txikia.

Emakume eta gizon askeak, buru- eta gorputz-jabeak izateko heziketa zeinen garrantzitsua ondo dakitenez, LOMCErekin hezkidetzaren bidean egindako lana ezabatu nahi du Espainiako Gobernuak. Berdintasunaren eta hezkidetzaren alde egindako lana alde batera utzi eta erlijio katolikoa jarri nahi du erdigunean. Elizak eta Estatuak eskua emanda sartu nahi dute eskoletan, haurren gogoak kolonizatzeke.

Hedabideetan ere atzerakada garrantzitsua atzematen dugu eta bereziki larria iruditzen zaigu bertako hedabide publikoetan gertatzen ari dena. Aktualitateko arazoen inguruko eztabaida eta tertuliatan emakumeon presentzia anekdotikoa da. Ez dugu ahotsik. Ikusezinak gara. Horretaz gain, hedabideetako edukiek eta publizitateak estereotipo, rol eta balio sexistak elikatzen eta indartzen dituzte. Gaur egun, esan dezakegu, hedabideak estereotipoen habia direla.

Egoeraren irakurketak alarma guztiak piztera garamatza. Feministok urteetan aldarrikatutako eta borrokatutako helmuga gero eta urrunago dago eta inboluzio lazgarria sufritzen ari gara. Emakumeok subjektu politiko gisa, eskubide osoko herritar gisa onartzetik gero eta urrunago gaude. Egungo krisia emakumeon askatasunen eta berdintasunaren krisia ere bada. Ez orain arte helburuok lortu genituelako baina bai atzerapauso nabarmenak ematen ari garelako. Ez halaberharrez, ordea; botere politikoek eta ekonomikoek norabide horretan eraman nahi gaituztelako baizik. Emakumeok berriro ere sistema heretropatriarkalaren kaiolara lotu nahi gaituzte.

Egoeraren irakurketa gordinak etsipenean erortzeko baino, egoeraz jabetu eta erantzuna pizteko balio izatea nahiko genuke. Betaurreko eta lupa moreak jantzi, elkarri eskua eman eta atzerapausoak identifikatu eta hauei aurre egiteko prestatu behar dugu. Eta gure bidea egin, guk nahi duguna izateko, euskaldunak, askeak, zernahi. Jostun onen moduan, jos ditzagun emakumeon arteko sare sendoak. Eta zabal dezagun gure sarea eta lana esparru guztietan, esparru sozio-ekonomikoan, kultur arloan, esparru politikoan, erakundeetan. Eta elika ditzagun aliantzak eragile sozial, politiko eta sindikalekin, Euskal Herri euskalduna eta feminista ezkerretik eraikitzeke.

Gaur, 2014ko martxoaren 8an, EHBilduk Euskal Herri feministaren helburua bere egin eta borroka feminista indartzeko konpromisoa adierazten du. Gure zeregina da mugimendu feministarekin batera orain arteko borroken lekukoa hartu eta borroka horiei eustea, gure zeregina da erdi lo genituen borrokak berpiztea, lortutzat genituen eskubideak uste baino errazago gal ditzakegulako, eta gure zeregina da mugimendu feministak irekitzen duen bidea jarraitzea, pausoz pauso, orpoz orpo.

Emakume eta gizon askeen Euskal Herria helburu, bide horretan lan egingo dugu erakunde publikoetan, elkarteetan, komunikabideetan eta kalean. Jakitun gara jendartea eraldatzeak gure buruak ere eraldatzea esan nahi duela eta, jakitun gara, barne-mailan gauza asko ditugula oraindik lantzeko. Ez gara jendartetik isolatutako erakunde bat eta guk ere ikasi eta landu beharreko alderdi



**asko ditugu oraindik. Bada, kanpora begira egingo dugun lanaz gain, etxe barruan ere eraldaketa feministaren bidean lan egiteko konpromisoa hartzen dugu.**

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Gutierrez andrea

Adierazi du ez duela dena irakurriko oso luzea delako, eta bakarrik azken lerroak irakurri du.

#### Dubreuil jn.

Adierazi du EAJ taldearekin batera adostutako adierazpen politikoa babestuko duela.

#### Santamaria jn.

PSE taldearekin adostutako adierazpena irakurri baino lehen, alde aurretik aipatzea irakurritako manifestuaren lerroarekin bat datozela, nahiz eta aurrekariarekin eta ipinitako moduarekin hain ados ez egon; jarraitu du esanez Legealdi honetan eta aurreko legealdian Udalean emandako pausoetan oinarritu dutela eta jarraian prestatu duten adierazpenaren aspektu esanguratsuenak irakurri ditu.

*“Justificación: (erderaz bakarrik pasa didate)*

*La Ley Orgánica 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción del embarazo fue aprobada hace apenas cuatro años con gran consenso social y político.*

*Actualmente, el gobierno de Mariano Rajoy ha presentado un anteproyecto de Ley Orgánica por el que se pretende revisar la legislación vigente en el Estado sobre salud sexual y reproductiva e interrupción voluntaria del embarazo que ha generado rechazo incluso en las filas del propio Partido Popular.*

*La modificación que se pretende es contraria al sentir mayoritario tanto de la sociedad como de los distintos partidos políticos.*

*Habida cuenta del amplio consenso que obtuvo la Ley Orgánica 2/2010 y del amplio rechazo que está generando el Anteproyecto de Ley que está tramitando el P Pen Madrid, es por lo que el grupo municipal EAJ-PNV presenta para su debate y aprobación en el pleno municipal la siguiente*

**MOCION**



*El Ayuntamiento de Ordizia solicita al Gobierno del Estado que retire el Anteproyecto de Ley Orgánica por el que el gobierno pretende revisar la Ley 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción del embarazo.”*

Gutierrez andrea:

Eskatu dio Santamaria jaunari mesedez adostutako adierazpena pasatzeko bere edukia aztertzeko, eta galdetu du ea zergatik ez den adostasuna lortzeko ahaleginik egin.

Alkate jn:

Modu berean, beste bi talde buruei galdera gisa jakin nahi lukeela zergatik adostu duten adierazpen hori beraiek bakarrik.

Santamaria jn.

Adierazi du joan den astean hitz egin zutela, behin erderara itzuli ondoren, geratuko zirela hiru taldeetako ordezkariak bilera egiteko, eta gaur eguerdian Dubreuil jaunak adierazpena erderatuta jaso duenez, azkenean ez direla gelditu, eta besterik gabe honela izan dela.

Alkate jn.

Honelako gaietan, beste batzuetan testua adosteko Pleno aurretik egin izan ohi dugu bilera, egia da gaur pasatu zaiola Dubreuil jaunari mozioa erderaz, kurioso da testua euskaraz duzuela, zuen jarrera hori bada...

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



### **3.- Saharako bandera Ordiziako Udaletxeko balkoian ipintzeko proposamena.**

#### Proposamena

Datorren otsailaren 27an, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuteneko 38. urteurrena.

Urtero bezala, EUSKAL FONDOAREN Sahara koordinazio Unitateak eta POLISARIO Frontearen Ordezkaritzak, egun horretan Saharako bandera Euskadiko Erakundeetan ipintzea proposatzen dute.

Hori dena kontuan hartua, eta 2014ko otsailaren 19ko Plenoko Gai Batzordean proposatutakoaren arabera, honako hau da aurkezten den,

AKORDIO PROIEKTUA:

**Datorren otsailaren 27an, Saharako bandera Ordiziako Udaletxeko balkoian ipintzeko proposamena onartzea.**

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Maiza andrea

Adierazi du gaur, Sahara Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuteneko 38. Urteurrena ospatzen dela, eta urtero bezala, EUSKAL FONDOAREN Sahara koordinazio Unitateak eta POLISARIO Frontearen Ordezkaritzak, Saharako bandera Euskadiko Erakundeetan ipintzea proposatzen dutela, gaurko egunez edo aste osoan zehar, eta hori dela Udal Osoko Bilkura honetara ekartzen den proposamena.

#### Bozketa

Eztabaida mahaiari amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0





**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

#### **4.- Ordiziako Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako II.Plana onartzea.**

##### Proposamena

Ordiziako II. Berdintasun plana jasotzen duen dokumentua aurkezten da. Udalerri mailako plana da, hau da, Udalaz gain, herriko eragileei dagozkien helburuak eta ekintzak topa daitezke bertan. Izan ere, Ordiziako Udalak uste du Berdintasuna txoko eta arlo guztietatik bultzatu behar dela, modu integrarean. Udalak ez ezik, herriko bizitzan eta herritarren balioetan, herriko entitate, elkarte eta taldeek ere eragiten dute, eta beraz, guztien artean adostutako helburuak jaso dira. Herri mailan berdintasunaren alde egiten diren ekimenak koordinatu eta ikustarazteko balio du horrela. 2013-2016 artean indarrean egongo da.

Ordiziako Udalak, Iº Plana 2010. Urtean onartu zuen, eta 2012. Urte arte indarrean egon da, eta horren amaieran Planaren ebaluazioa egin da.

2013ko martxotik uztaile bitarte, II. Berdintasun Planaren diseinua egiteko parte-hartzean oinarritutako prozesu bat landu zen eta prozesu horretan egindako lanaren emaitza da Ordiziako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana (2013-2016). Lan hau egiteko Elhuyar enpresa kontratatu zen, eta udalerri mailan, Udalarekin zein herritarrekin egindako hausnarketa prozesuen bidez, eta elkarlanean oinarrituz, osatu da hurrengo urteetarako plangintza.

Modu honetara, Ordiziako Udala konprometitzen da, hurrengo urteetan hemen jasotako lanak aurrera eramatera: alde batetik, gobernantzan sakontzeko asmoz, eta bestetik, herri mailan eragile desberdinen arteko koordinazio guneak dinamizatu, eta oro har, herri mailan Berdintasuna sustatuz.

Berdintasun delegazioak, 2013ko urriaren 2an onartutako diktamenaren arabera, Emakundera bidali zen, eta erakunde horri dagokion erantzuna jaso da.

Berdintasun sailetik proposatutakoaren arabera, honako hau da,

AKORDIO PROIEKTUA:

#### **Ordiziako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Plana onartzea.**

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.



## Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

### Gutierrez andrea:

Adierazi du jakitun direla denak, I. Planarekin amaitu ondoren, II. Planari ekin behar zaiola, eta sortze bide honetan aurre pausoak dagoeneko eman direla.

### Santamaria jn:

Adierazi du bere taldeak alde bozkatuko duela, berdintasuna giza eskubidea izateaz gain gobernu on baterako faktore oinarrizkoa eta ezinbestekoa delako, eta gure gizartearen garapen sozial eta ekonomikorako elementu beharrezkoa dugulako berdintasuna.

## Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **5.- Kreditu transferentzi espedientea onartzea.**

#### Proposamena

2014ko otsailaren 3an gastu proposamen bat aurkeztu zen Kiroldegiko Musika Lokaletako sarreran itxitura egin eta atea jartzeko, bere aurrekontua 3.937,34 eurokoa zelarik. Proposatzen zen obra txikietarako dagoen kreditua erabiltzea.



Kontuhartzaileak, 2014-2-5ean bere txostena egin zuen kreditu egokia falta zela eta obra txikietako partida erabili nahi bazen Plenoko alordiaren beharra zegoela esanez.

Ogasun Delegaritzak otsailaren 7an aldeko diktamena eman zuen.

#### AKORDIO PROPOSAMENA

**2014ko Aurrekontuko 601.511.00.02 partidatik 4.000 euro pasatzea 622.451.10.04 partidara.**

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Kontuhartzaile in:

Adierazi du Majorin musika lokalak egokitzeko iaz 60.000 euroko partida zegoela eta azkenean 55.000,00 euro gastatu zirela, eta 5.000,00 euro geratu zirela proiektu horri lotutako beste gastu batzuei aurre egiteko eta aurten 4.000,00 euroko beste gastu bat dagoela, eta obra txikietako delegazioan onartu zela obra txikietako partidatik 4.000,00 euro hartzea prestaketa hori bukatzeko.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7(BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



## **6.- 2013an krediturik gabe egindako gastuak 2014ko aurrekontuan sartzea.**

### Proposamena

<b>PARTIDA</b>	<b>KONTZEPTUA</b>	<b>EURO</b>
212.111.00.01	<b>Gobernu Organoen instalazioetako mantenua</b> Ondoan: Bero Ponpa. Plaka nagusia. Ondoan: 3. solairuko probak. Ondoan: 3. hiruhilabeteko mantenua	1.653,83 110,72 466,62 <b>2.231,17</b>
226.111.00.99	<b>Gobernu Organoen zenbait gastu</b> Etixeraino. Triptikoaren banaketa.	442,13 <b>442,13</b>
625.121.00.02	<b>Sarbidea kontrolatzeko makina</b> I-Sai. Konfigurazioa eta Formazioa, terminalak.	381,15 <b>381,15</b>
210.222.12.01	<b>Trafikoa kontrolatzeko bide seinaleen mantenua</b> J. A. Horrillo. Aparkalekuetako pintaketa-lanak. Sumialonso, S.L. Mugak ipintzeko materiala.	697,40 153,74 <b>851,14</b>
212.222.12.01	<b>Trafikoa kontrolatzeko instalazioen mantenua</b> Thor. Pilonaren konponketa Señales Girod. Aluminiozko 2 angeluzuzen.	1.311,70 197,22 <b>1.508,92</b>
226.324.00.98	<b>Publizitatea</b> Nekar. Ordiziako kale-izendegirako laguntza. Truke. Bando eta buzoi banaketa	1.149,50 1.669,80 <b>2.819,30</b>
212.434.11.01	<b>Parke eta Lorategietako instalazioen mantenua</b> J.R. Garmendia. Abendua Altzibar. Labanda, erromeroa.. Tximela. Plataformaren alokairua.	2.395,80 2.214,30 1.109,27 <b>5.719,37</b>
622.435.00.02	<b>Udal biltegia erostea eta egokitzea.</b> Goiko-Luz. Material elektrikoa. Unanue Iturgintza. Ur hotza, beroa... ipintzea. Garz. Atea ipintzea eta zuloa egokitzea	340,32 2.214,64 998,25 <b>3.553,21</b>
226.442.10.99	<b>Zaborren Zerbitzuko zenbait gastu.</b> Goierri kopiak. 16.800 fotocopia Atez Aterako. Laia. Atez Ateko partaidetza prozesuaren dinamizazioa. Zubeldiarent. Kamioi txikiaren alokairua.	752,14 2.510,75 484,00



		<b>3.746,89</b>
213.442.20.01	<b>Kale Garbiketarako ibilgailuen mantenua</b>	
	Arrizabal. MFH 2500 Zilindro hidraulikoa, diskoa.	440,25
	Hidráulicas Naia. Tenkagailuaren konponketaMFH 2500	114,04
	Udalauto. Olio, haizetakoa (parabrisas) garbitzekoa....	448,17
		<b>1.002,46</b>
221.442.20.99	<b>Kalea garbitzeko material berezia</b>	
	Sical. 12 alboko arrabol	700,01
	Sical. 10 alboko arrabol	582,64
	Vadrisa. Zakuak	296,93
		<b>1.579,58</b>
226.442.20.99	<b>Kalea garbitzeko zenbait material</b>	
	Apain. Hondakinen garraio-kostua	295,48
	Apain. Hondakinen garraio-kostua	259,56
		<b>555,04</b>
226.454.12.99	<b>Euskal Jaiak. Asteazkena</b>	
	Hebe. Pirenaika ganadu lehiaketa	7.000,00
		<b>7.000,00</b>
210.511.00.01	<b>Kaleen mantenua</b>	
	Hormig. Goierriko. Hormigoia	504,57
	Apain. Obra-Hondakinak eramatea	502,34
	Sumialonso. Hodiak, giltza finkoak...	194,49
	Apain. Hondarra, baldosak, garraio-gastuak...	2.113,31
	Apain. Hondarra, baldosak, garraio-gastuak...	1.088,57
	Apain. Hondarra, baldosak, garraio-gastuak...	312,30
	Apain. Hondarra, baldosak, garraio-gastuak...	114,40
		<b>4.829,98</b>
212.511.00.01	<b>Kaleko makinien eta tresnen mantenua</b>	
	Compresores Lor. Aire konprimatuzko 2 zorroten.	1.086,58
	Zelaeta. Makinen konponketa	161,98
		<b>1.248,56</b>
213.511.00.01	<b>Kaleko ibilgailuen mantenua</b>	
	Garz. Dumper-aren konponketa	635,25
	Jatur. 2 gurpil	126,57
	Firststop.Obretako Kubotarentzako 2 gurpil	286,88
		<b>1.048,70</b>
221.511.00.05	<b>Kalekoentzako jantziak</b>	
	Apain. 4 ranger, 2 galtza eta 4 bota-pare ,	287,54



226.622.31.99	<b>Gabonetako azoka berezia</b>	287,54
	Transportes IGO. Idiazabal eta Zumarragara garraio-gastuak	583,20
	M.A.Sukia. Lastozko 21 bals	138,60
		<b>721,80</b>

**GUZTIRA** 39.526,94

**Gastu hauek, 2013ko Aurrekontuetan kontabilizatutakoak barne, baliogabeak dira partidetako Kontsignazioa gainditzen dutelako. 2013 urteko gastuak 2013ko Aurrekontuan kontabilizatu behar dira, baina ezin denez, 2014ko Aurrekontuetan kontabilizatu behar da, nahiz eta legez urteko ekitaldian burututako gastuak soilik sartu behar diren.**

**Udaleko osoko bilkuraren erabakia behar da 2013ko gastuak 2014ko Aurrekontuan kontabilizatzeko, 2014ko partiden aurrekontu dotazioa handituz edo 2014an egin beharreko gastuen kredituak murriztuz.**

**Borondatezko gastuen desbideraketak arduradunek arrazoitu behar dituztela uste dut, eta arrazoiketa zentzuzkoa ez den Kasuan, hurrengo urteko gastu-mailan aldaketaren bat egin beharko da, eta beharrezkoa ikusten bada erantzukizun pertsonalak ezarri.**

**Mantenu-lanetako gastuen desbideraketek erakusten dute egin behar dena hobeto definitu behar dela eta urtean zehar exekuzioaren kontrol handiagoa egin behar dela, gastuak Dekretu bidez onartuz.**

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Kontuhartzaile jn.

Urtero bezala , aurten ere gastu batzuk geratu dira krediturik gabe, konkretuki 2013an 39.000,00 euro geratu dira , legeak ez du onartzen besterik gabe hurrengo aurrekontuan sartzea eta horregatik hartu behar da erabakia; kopuru hau da azken urteetako kopurua txikiena, beharrezkoa da akordio hau hartzea zeren eta fakturak ordaintzeko pendiente daude, eta hasieran esan bazuen ere ez zela 2013ko soberakina izango faktura hauei aurre egiteko finantziazioa emateko, atzo itxi zuenez likidazioa eta datorren egunetan datu zehatzagoak izango direnez, orduan jakingo da nola geratzen den azkenean eta aztertuko da nola egin behar den. Momentuz garbi dago faktura hauek 2014ko aurrekontura pasatu behar direla ordaindu ahal izateko.



## Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7(BILDU 7)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **7.- Ordizia “Hiri Hezitzailea” proiektuari atxikitzea.**

#### Proposamena

“Ordizia-Hiri Hezitzailea” proiektuko lan-taldean oinarrituta, Gobernu Batzordeak bat egiten du Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartean (AICE) sartzeko eskaerarekin. Mugimendua 1990. urtean sortu zen, 22 herrialdetako 127 hiri baino gehiagok bat egin dute Hiri Hezitzaileen Gutuneko oinarriekin eta herritarren bizi-kalitatea hobetzeko proiektu eta ekintzetan lan egiteko helburuarekin elkartzen dira, eta beraien helburuak honakoak dira:

- Hiri Hezitzaileen Gutuneko oinarriak betetzea (erantsita Gutuna- 2. ERANSKINA)
- Hirien artean proposamenak aztertzea eta ekintza zehatzak gauzatzea.
- Nazio mailako eta nazioarteko erakunde desberdinen arteko elkarrizketa eta lankidetzaren sustatzea.

2008ko urtarrilean sortutako “Ordizia Hiri Hezitzailea” hazi egin da urtetik urtera eta aberastu ezagutzan sakonduz, partaide kopurua handituz eta sarean landutako programek ere indarra hartu dute. Azpimarragarria da antolatzen diren ekintza guztien oinarrian hezkuntza-intentzionalitatearen garrantzia.

Proiektuaren berezitasuna aintzat hartuta, 2012-2013 ikasturtean HIK HASIk eta Mondragon Unibertsitateak jardunaldi pedagogiko batzuetan parte hartzeko deia egin ziguten maiatzean Donostian eta ekainean Eskoriatzan, proiektua ezagutarazteko helburuarekin.

Honekin batera hezkuntza izaera duten “Cuadernos de Pedagogía” eta “Hik hasi” aldizkariak proiektuaren berri eman dute, eta baita gizarte hezkuntza alorreko beste zenbait aldizkarik ere.



Horregatik guztiagatik Elkarte honetako (AICE) kide izatea garrantzitsua dela jotzen da, eta osoko bilkura honetan ondorengo Akordio Proiektua aurkezten da bozkatzeko:

- 1.- Udal hau AICEra atxikitzeko proposamena onartzea eta Hiri Hezitzaileen Gutuneko oinarriak betetzea.**
- 2.- Elkartera sartzeko beharrezkoak diren tramiteak bideratzea:**
  - AICEra sartzeko eskaera betetzea eta Hiri Hezitzaileen Gutunaren atxikimendua sinatzea Alkateak.
  - Atxikimendua onesten duen osoko bilkurako akordioaren kopiarekin batera bidaltzea.
  - Dagokion kuota ordaintzea.
- 3.- Eskumena ematea Alkate jaunari AICEk eskatutako agiriak sinatzeko.**

proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

#### Maiza and.

Adierazi du labur egingo duela gai honen ibilbide historikoa eta zergatik ekartzen den Udal Osoko Bilkura honetara. Bidalitako informazioa nahiko argigarria dela eman diren urratsak eta proiektuaren helburuak ulertzeko. Proiektua hau 2008an hasi zela dio Ordiziako Udalak eta EHUak laguntza teknikoa emateko akordioa sinatu zutenean. Ordizia Hiri Hezitzailea bihurtzeko konpromisoa hartu zuen jakinik XXI. mendeko hiritarrek "hiritar aktiboak" izatea dela hainbat erakunderen (ONU, UNESCO) txostenetan azaltzen den legez eta horretarako udalek dituzten baliabideak pertsonen eten gabeko heziketaren baitan jarri behar dituztela.

Hasieran kanpoko laguntza teknikoa izan bazuen ere, talde osaketa, saretze lana, proiektuaren sostengua eta motibazioan udala izan da traktore nagusia. Taldeak (19/20 erakunde eta udaleko hainbat sail ari dira) prozesu eraikitzailearen oinarriak bereak egin ditu eta horrek berealdiko sendotasuna eman dio proiektuari. Azpimarratu nahi da proiektua lan kolektiboa dela horizontalki funtzionatzen duena eta elkarte desberdinen beharrak eta motibazioak partekatu egiten direla eta zehar lerro modura aisia eta belaunaldien artekootasuna ipartzat dituela.

Erakunde batzuen eskariz, Hik Hasik, Mondragon Unibertsitateak, 2013an Donostian eta Eskoriatzan ospatutako Jardunaldi Pedagogikoetan aurkeztu zela "proiektu singular" gisa. 2014ko azaroan, Bartzelonan egingo den Hiri Hezitzaileen mundu mailako kongresuan ere aurkeztuko da gure proiektu hau EHU eta Mondragon Unibertsitateko irakasle batzuen eskariz.





Dubreuil jn.

Adierazi du ados...eta horrekin batera baita tematika sare baten barruan sartzeko asmorik egongo litzateke.

Maiza Andrea:

Guk orain arte ez dugu presarik izan "AICE"n sartzeko eta horregatik Mundu mailako erakundetik kanpo aritu gara oso garbi beit geneukan hori ez zela izan behar gure helburu nagusia, etorriko zela momentua elkartean sartzeko eta itxaron egin behar genuela gure proiektua sendotu bitartean. Beste hiri batzuen prozesua bestelakoa dela ere badakigu, sarekide izan eta proiektua dinamika ,agian, nahiko motela da. Ezagutzen dugu EH Hiri Hezitzaileen mapa eta guk edukitako harremanengatik, sakonago, Barakaldo eta Lizarrakoak dira. Guretzat desiragarria da, denbora gutxi barru ,EHko Hiri Hezitzaileen arteko sarea sortzea. Asmo honekin bat egiten du Mondragon Unibertsitateak ere eta lankitzetza hau elkarrekin egiteko asmoa ere badugu.

Dubreuil jn.

Azkenean kuota 220,00€koa da?

Maiza andreak

Erantzun dio baietz, baina ez dela ekarri Udal Osoko Bilkurara kostuagatik, baizik eta Udal Osoko Bilkuran erabakia hartzea eskatzen delako "AICE"ko kide izan ahal izateko.

Dubreuil jn

Adierazi du irakurri duela artikulu batean obligazio bezala "AICEk" antolatzen dituen ekitaldietara joatea dela, eta adibide bezala jarri du datorren hilean Argentinan ekitaldi bat dagoela.

Maiza Andrea

Hasiera-hasieratik helburua oso garbia izan dugu: talde- lanean hastea eta sendotzea izan dela ,elkarrekin eta elkarrengandik ikasi gizarte berri baten beharrei erantzuteko . Ez dugu lehenetsi horrelako foroetara joatea. Gainera, bertaratu gabe, foroetan parte hartzeko beste modu batzuk ere badaudenez horien erabilera ere bultzatu beharrekoa dela dio.

## **8.- GALDE -ERREGUAK EZ DIRA IZAN**

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, behin behineko Idazkariak egiaztatzen dut.

